



2003/02/04ko prentsa-oharra


INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)**2002ko abendua**

EUSKAL AE-KO INDUSTRI JARDUERA % 2,7 IGO ZEN 2002KO ABENDUAN

Datu horiekin, Euskal AEko Industri Produkzioaren Indize Orokorrak % 0,7ko jaitsiera izan du 2002. urtean.

2002ko abenduan, % 2,7 hazi zen Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizea, aurreko urteko hil beraren aldean, Eustatek eskainitako datuen arabera. Jaiegunen eragina zuzenduta, balio homogeneotan neurtuta, berriz, Industri Produkzioaren Indize Orokorra % 1,5 urretu da. Izan ere, joan den abenduak 2001ekoak baino lanegun bat gehiago izan zuen.

Euskal AE-ko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua, 1997-2002



Iturria: EUSTAT

2002ko abenduan, urte arteko aldakuntzarik positiboak sektore hauetakoak izan ziren: *ehungintza eta jantzigintza* (% 17,0), *garraio-materiala* (% 13,4), *kimika-industria* (% 11,1) eta *kautxua eta plastikoa* (% 6,0).

Urte arteko tasa negatiboak izan zituzten sektoreen artean, *metalezko eta ez-metalezko meak* (% -18,1) ageri da lehendabiziko; hurrena, *bestelako manufakturak* (% -8,3), *material elektrikoa* (% -6,9) eta *ez-metalezko industria* (% -4,6).

Bitarteko ondasunek eta ekipo-ondasunek % 7,9ko eta % 7,7ko tasa positiboak izan dituzte, hurrenez hurren, joan den abenduan. Kontsumo-ondasunak, berriz, % 3,7 jaitsi dira, 2001eko abenduaren aldean.

2002. URTEAREN BALANTZEA

2002. urtearen balantzeak % 0,7ko jaitsiera dakar, Indize Orokorren tasa metatuan, aurreko urteko aldi beraren aldean. Jaiegunen eragina zuzenduta, % 0,8ko gutxitzea esan nahi du horrek.

Produkzioa gehien handitu duten sektoreak hauek izan dira, 2002an: *garraio-materiala* (% 5,8), *zurgintza* (% 4,5), *elikagai-industria* (% 3,4) eta *kimika-industria* (% 3,1). Gehien txikitu diren sektoreak, aitzitik, hauek izan dira: *petrolio finntzea* (% -14,0), *ehungintza eta jantzigintza* (% -4,0), *metalgintza eta metalezko gaiak* (% -2,9) eta *makineria* (% -2,7).

2002. urte osoan, bitarteko ondasunak eta kontsumo-ondasunak % 1,1 eta % 0,1 hazi dira, hurrenez hurren; ekipo-ondasunak, oster, % 1,8 jaitsi dira.

2002 urtearen balantzean, lurralde guztiek ez dute zeinu bereko bilakaera izan. Araba eta Bizkaia pixka bat hazi dira (% 0,5 eta % 0,1, hurrenez hurren); Gipuzkoa, berriz, % 2,2 jaitsi da 2001. urtearen aldean.

Taula: 2002ko ABENDUA. Industri Produkzioaren Indize Orokorren hazkunde-tasa (%).
Euskal AE

Kontzeptua	Aurreko urteko hila beraren aldean		2001eko urtarril-abenduko tasa metatua		2002ko urtarril-abenduko tasa metatua	
	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)	originala	zuzendua(*)
Indize orokorra:						
Euskal AE	2,7	-1,5	-0,1	-0,7	-0,7	-0,8
Araba	5,9	1,5	-0,5	-1,3	0,5	0,4
Bizkaia	5,9	2,0	-0,5	-1,2	0,1	0,0
Gipuzkoa	-2,5	-6,7	0,7	0,0	-2,2	-2,4
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE						
Bitarteko ondasunak	7,9	4,0	0,6	0,0	1,1	1,0
Kontsumo-ondasunak	-3,7	-7,8	-1,6	-2,3	0,1	0,1
Ekipo-ondasuna	7,7	2,4	-0,7	-1,5	-1,8	-2,0

(*) Lanegunez zuzendua.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 017 500. Faxa: 945 017 501. E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Luis Carlos Jorge Alonso Tel.: 945 017 514. Faxa: 945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--